AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Araudi bidezko garapena.

Estatuko Osasun Sistemaren prestazio-antolamenduaren araberako osasun-zerbitzu publiko nahiz itunduak ezertan murriztu barik, gaitu egiten da berariaz Osasun Saila, behar diren arau tekniko zein antolamenduzkoak ezar ditzan, esandako katalogoaren oinarrizko osasun-prestazioak aplikatzeari begira, beti ere Euskadiko Osasun Planean ezartzen diren helburuekin bat.

Ahalmena ematen zaio Osasun sailburuari Dekretu hau garatu eta betetzeko behar diren beste xedapen emateko, bere kabuz edo beste organo eskudunekin batera.

*Bigarrena.–* Indarraldia.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko otsailaren 2a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Osasun sailburua,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Desarrollo reglamentario.

Sin perjuicio de la aplicación en los servicios sanitarios públicos o concertados de la ordenación de prestaciones sanitarias del Sistema Nacional de Salud, se mantiene la habilitación específica al Departamento de Sanidad para que establezca las normas técnicas y de organización que resulten necesarias para la aplicación de dicho catálogo básico de prestaciones sanitarias de acuerdo con los objetivos que al respecto establezca el Plan de salud de Euskadi.

Asimismo se faculta al Consejero de Sanidad para dictar, individual o conjuntamente a otros órganos competentes, cuantas otras disposiciones requiera el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

*Segunda.–* Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de febrero de 1999.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Sanidad,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

### Zk-578

ERABAKIA, 1998ko urriaren 9koa, Idazkari Nagusiarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea antolatzeko ekainaren 29ko 19/1998 legeko azken xedapenetako hirugarrena betetzeko dena.

Unibertsitateak bere araubide propioa dauka erakundea antolatzeko, bere interesen defentsan aritzeko balio diona, Konstituzioak 27.10. artikuluan onartzen duen unibertsitateen autonomiatik eratorria.

Araubide horri atxikita dago arauak egin eta onartzeko erakundeak daukan ahalmena. Horri esker dauzka Unibertsitateak bere Estatutuak, erakundearen antolaketaren ezaugarri berezi diren arlo eta organoak erregulatzen dituzten oinarrizko arauak. Baina, Estatutuez gain, beste motako batzuetako arauak daude, honela sailkatu ahal ditugunak:

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

### N°-578

RESOLUCIÓN de 9 de octubre de 1998, de la Secretaria General, por la que se da cumplimiento a la disposición final tercera de la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Universidad cuenta con un régimen propio de autoorganización, poder ejercitable para la defensa de sus intereses propios, derivado del reconocimiento que la Constitución en su artículo 27.10 hace de la autonomía de las Universidades.

Elemento sustancial de este régimen es la capacidad de autonormación. En ejercicio de esta capacidad la Universidad se dota de sus Estatutos, normas básicas que regulan por sí mismos aquellas materias y órganos que estructuran los rasgos esenciales de la organización universitaria. Pero junto al Estatuto existen otro tipo de normas, que podemos clasificar en:

1.– Barruko funtzionamendurako arauak, hau da, antolaketari eta ihardupideari buruzko arautegiak; eta

2.– LRUtik edo beste lege batzuetatik eratorritako arautegiak, hau da, antolaketari eta ihardupideari buruzkoetan jasotakoaz ari ez direnak, baizik eta legetik edota Estatutuetatik eratorritako edukien arautzea ezartzen dutenak.

Baina ihardubide aplikagarria arautzeko ahalmena ez dago mugatuta Unibertsitatearen esparrura. Unibertsitatearen Erreformarako abuztuaren 25eko 11/1983 Legeak, 6. artikuluan, unibertsitateen antolamendu juridiko partikularraren aipamena egiten du: «unibertsitateak lege honen bidez arautuko dira, Estatuak eta Autonomia Erkidegoek erabaki ditzaketen arauen bidez, eta euren estatutuen bidez».

Emandako ahalmenez baliatuta, 1998ko uztailaren 16an argitaratu zen EHAAn Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzeko ekainaren 29ko 19/1998 Legea. Lege horretako azken xedapenetako hirugarrenak dioenez, xedapen orokorrak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko ditu Unibertsitateak, legea argitaratu eta hiru hilabeteko epearen barruan. Epe hori amaitu eta gero ez dute inolako indarrik izango, harik eta argitaratzen diren arte.

Arauak argitaratzeko printzipioak, Konstituzioko 9.3. artikuluan duenak babes, ez du onartzen salbuespenik. Eta guztiz logikoa da, arau publikoek gutxienezko segurtasun juridikoa izan dezatela nahi bada. Arauak argitaratzeak hauxe esan nahi du: jendeak horien berri izan behar duela, hots, ez direla arau sekretu edo ezezagunak. Garrantzitsuena, beraz, ez da EBOn edo EHAAn argitaratzea, arau horren berri izan behar dutenek jakinaren gainean jartzeko mekanismoak aurkitzea baizik. Eta mekanismo horiek ezin hobeto funtzionatu dute gure Unibertsitatean. Eta halaxe ulertu du baita ere Auzitegi Konstituzionalak, ondokoa onartzean: arau batzuen kasuan ez da gertatzen beharrezko aldizkari ofizialetan argitaratzea, nahiz eta arauok ez betetzearren zigorra jar daitekeen. Dena den, kasu batzuetan komenigarria dirudi EHAAn ematea argitara, horregatik gutxiesteke unibertsitateek betidanik erabili dituzten bideak.

Aipaturikoa kontuan hartuta, eta Unibertsitatea Antolatzeko 19/1998 Legeko azken xedapenetako hirugarrena betetzeko,

ONDOKOA ERABAKI DUT:

Eranskinean aipatzen diren arautegiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argiratuak izan daitezela.

Leioan, 1998ko urriaren 9an.

Idazkari Nagusia,
MARISOL ESTEBAN GALARZA.

1.– Normas de funcionamiento interno, constituyen los reglamentos organizativos y de procedimiento y,

2.– Reglamentos dictados por remisión de la LRU u otras normas, que no tienen el contenido propio de los reglamentos organizativos o procedimentales, sino que establecen una regulación material sustantiva por remisión de la ley o los Estatutos.

Pero, no sólo la Universidad tiene capacidad de regular cual es el régimen aplicable. Su ordenamiento jurídico particular está fijado en el artículo 6 de la Ley 11/1983 , de 25 de agosto, de Reforma Universitaria : «las Universidades se regirán por la presente Ley , por las normas que dicten el Estado y las Comunidades Autónomas y por sus Estatutos».

En ejercicio de esta competencia atribuida , con fecha 16 de julio de 1998 se publicó en el BOPV la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Esta Ley establece en su Disposición Final Tercera la obligación de la Universidad de dar publicidad en el Boletín Oficial del País Vasco a las disposiciones de carácter general, en el plazo máximo de tres meses desde su publicación, pasado el cual carecerán de eficacia hasta su publicación.

Si bien el principio de publicidad de las normas que consagra el artículo 9.3 de la Constitución no admite excepciones, lógico si se pretende dotar de un mínimo de seguridad jurídica a las regulaciones públicas, la publicidad de las normas no significa otra cosa que hacerlas públicas, es decir que no sean normas secretas o desconocidas. Lo importante, pues no es la publicación en el BOE o en el BOPV, sino buscar mecanismos que aseguren la publicidad idónea según quienes sean los destinatarios de la norma, mecanismos que han funcionado eficazmente dentro de nuestra comunidad universitaria. En este sentido lo ha entendido también el Tribunal Constitucional al admitir que determinadas normas , cuyo incumplimiento puede ser sancionado , no se publiquen en los periódicos oficiales. No obstante, en algunos casos sí puede resultar oportuna su publicación en el BOPV, sin que ello minusvalore los cauces utilizados habitualmente por las Universidades.

Por todo lo anterior, en cumplimiento de la Disposición Final Tercera de la Ley 19/1998, de Ordenación Universitaria

RESUELVO:

La publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la normativa recogida en el Anexo.

En Leioa, a 9 de octubre de 1998.

La Secretaria General,
MARISOL ESTEBAN GALARZA.

ERANSKINA

IRAKASLEAK

1.– Irakasleen Gestiorako Ibiltorria (1998ko apirilaren 30ekoa).

2.– 1994ko ekainaren 30eko akordioan jasotako aurreikuspenen osagarria, behin-behineko irakasle titularren izendapenak eta laguntzaile eta irakasle lagunen kontratuak adjudikatzeko lehiaketa publikoetarako gutxienezko baldintzak eta irizpide orokorrak onartzeko dena (1998ko maiatzaren 18koa).

3.– Irakasle lagunen kontratuak adjudikatzeko lehiaketa publikoetarako gutxienezko baldintzak eta irizpide orokorrak, zientzilari gazteak UPV/EHUn lanean has daitezen Hezkuntza Sailak eta Unibertsitateak sinatutako lankidetza-hitzarmenaren barruan.

4.– Unibertsitateko irakasleen plaza elebidunetako lehiaketetan euskarako gaitasuna frogatzeko egin behar diren probei buruzko arauak.

5.– Ohorezko lankideak izendatzeko arautegia (1992ko uztailaren 1ekoa).

UNIBERTSITATE ETA ENPRESEN ARTEKO HARREMANAK

1.– Lan zientifiko, tekniko edo artistikoak egiteko eta espezializazio-ikastaroak emateko izenpetuko diren kontratu edo hitzarmenei buruzko arautegia (1998ko maiatzaren 18koa).

KUDEAKETA AKADEMIKOA

1.– Unibertsitateko ikasketa osagarrien arautegia (1996ko uztailaren 15ekoa).

2.– Berezko tituluak lortzeko graduondoko ikasketei buruzko arautegia (1996ko martxoaren 7koa).

3.– Akademi Gestiorako Arautegia.

4.– Doktorego-programetara loturiko UPV / EHUko berezko titulu bat eratzeko erabakia (1994ko otsailaren 14koa).

ORGANOAK

1.– UPV / EHUko sailen oinarrizko arautegia. Testu egokitua (1995eko urtarrilaren 18koa, 1997ko martxoaren 12an aldatua).

2.– Hauteskunde-erregimen orokorra.

Ale Gehigarri bereizian argitaratzen dira aipatutako arautegiak.

ANEXO

PROFESORADO

1.– Circular de Gestión de Profesorado (30 de abril de 1998).

2.– Complemento a las previsiones contenidas en el acuerdo de 30 de junio de 1994, aprobatorio de los requisitos mínimos y criterios generales en concursos públicos para la adjudicación de nombramientos de profesores titulares interinos y de contratos de ayudantes y de profesores asociados, por el que se establecen criterios específicos de baremación para cada apartado objeto de valoración (18 de mayo de 1998).

3.– Requisitos mínimos y criterios generales en concursos públicos para la adjudicación de contratos de profesor asociado en el marco del convenio de colaboración entre el Departamento de Educación y la UPV / EHU para la incorporación de Jóvenes Científicos.

4.– Regulación de las pruebas para la acreditación del dominio de la lengua vasca para la docencia universitaria en los concursos para la cobertura de plazas de personal docente de carácter bilingüe.

5.– Normativa para el nombramiento de colaboradores Honoríficos (1 de julio de 1992).

RELACIONES UNIVERSIDAD-EMPRESA

1.– Normativa reguladora de los contratos o convenios que se suscriban para la realización de trabajos de carácter científico, técnico o artístico, así como el desarrollo de cursos de especialización (18 de mayo de 1998).

GESTIÓN ACADÉMICA

1.– Normativa sobre estudios complementarios de Universidad (15 julio de 1996).

2.– Normativa sobre estudios de postgrado conducentes a títulos propios (7 de marzo de 1996).

3.– Normativa de gestión académica.

4.– Acuerdo por el que se procede a la creación de un título propio de la UPV / EHU asociado a los programas de doctorado (14 de febrero de 1994).

ÓRGANOS

1.– Texto refundido sobre reglamento marco de los Departamentos de la UPV/EHU (18 Enero 1995, modificada el 12 de marzo de 1997)

2.– Reglamento del Régimen Electoral General.

En Suplemento aparte se publica la normativa que se cita.